

TEKNOLOGIA

Memoriaren munstroa



DIANA FRANCO

Asteburu euritsu honetan gaztarotik gordeta izan ditudan CD, disko gogor eta USB memoriak hartu eta barruak ikusten aritu naiz; gauza ugari aurkitu dut bertan: inoiz argia ikusi ez duten proiektuak, argazki zaharrak, testuak, antzinako programa piloa... Azken 20 urteetan euskarririk euskarrira igarotzen joan direnak, memoria mugagabea bailitzan. Bizitza osoa dokumentatzen, baina prozesu horretaz kontziente izan barik. Bitartean, zabor elektronikoko ugari sortu dut. Ibilbide honetan, memoria digitala munstro bilakatu zait, begiratu ere nahi ez nuena, eta munstroa kudeatzeko behar zen indarra aurkitzea urteak kostatu zait. Lana hasita, erabaki behar non gorde norberaren memoria? Norbere gailuetan ala besteren baten gailuan (hodeia)? Erabakia hartzeko aldagaiak asko dira: segurtasuna, pribatutasuna, kostu ekonomikoa, kostu ekologikoa, kudeatzeko erraztasunak... Momentuz, antzina argazki-albumekin bezala, nire memoria etxeko ordenagailu zahar batean izatea erabaki dut, aukera hori baitut. Gazte migratzaileekin lanean aritu nintzenean ohartu nintzen nire aukerak eurentzako ezinezkoak zirela, bizitzeko leku finko bat ez dutenek ezin dituzte sistema propioak sortu, euren aukera publizitate enpresen doako hodeiak izaten dira, euren agiri garrantzitsuenen kopia bat non-bait eskuragarri izateko. Bizitzeko aukeren gabezia, bizitzak instituzionalizatzen dira, eta instituzionalizaturiko bizitzetan pribatutasunaren aukera desagertu egiten da, zelataritza etengabe baten baitan bizitzera ohituta. Memoriaren munstro honi aurre egiteko teknologia zaharrak erabiltzen ari dira zenbait euskal gazte, argazkien kasuan: karrete kamera. Nahi izanez gero, sistema digital propioak eraiki ahal izango lituzkete, baina badirudi gutxiago izatearen bila daudela: konplexutasun gutxiago, kudeatzeko gutxiago, eduki gutxiago.

Momentuz, ditudan "hilotz elektronikoko" hauekin zer egin pentsatzen nabil; USB memoriak eta disko gogorrak berrerabil ditzaiket, baina CDak baratzean txoriak usatzeko erabilgarri izango dira soilik. ●

NAZIOARTEA

Migranteak itsasontzitik botata ito dituzte Greziako kostazainek, BBCren arabera

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Ekainaren 16an Britainia Handiko BBC telebista kateak publiko egin duenez, Greziatik Europara joan nahi zuten pertsonak modu basatian hil izan dituztela frogatzen duten lekukotasunak bildu dituzte. Greziako uretatik irten eta brankatik behera itsasora bota dituzten bederatzik kasu publiko egin dituzte.

Lekukotza gogorrak bildu dituzte BBCko Lucile Smith eta Ben Steele ikerketa kazetariak: "Bi pertsona bota zituzten ontzitik eta nola ito ziren ikusi genuen, gero ni bota ninduten"; "bizkarrean lotu zizkidaten eskuak eta itsasora bota ninduten, zorionez esku bat askatzea lortu nuen, baina gure taldeko hiru pertsona ito ziren", "nire familiakook airez puztutako ontzi batean sartu gintuzten itsaso erdian eta balbula ez zegoen ongi itxia, berehala hasi ginen urperatzen, ikusten gintuzten, eta hor utzi gintuzten (...) zortzi haur hil ziren".

BERROGEI TESTIGANTZA

Greziako kostazainen legez kanpoko praktika kriminalak salatzeko dituzten 40 lekukotza bildu ditu BBCk, eta horietatik bederatzik adierazi dute brankatik behera bota zituztela, batzuek, eskuak lotuta.

Europara heldu nahian beren herrialdeetatik ihesi, iaz Greziara 41.561 pertsona iritsi ziren. Greziako mugazainen bortizkeria eta legez kanpo jendea bueltan Turkiara eramaten dutela salatu dute ehunka aldiz gobernu kanpoko erakundeek. Greziako Gobernuak ukatu egiten du praktika hori erabiltzen denik.

Orain, ordea, lekuko zuzenek salatu dute itsasora bota izan dituztela ito asmoz. Greziako agintariak, kazetaritza informazio horien aurrean, ikerketa abiatu dutela esan dute. ●

